

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

2018. urteko dirulaguntza deialdiaren oinarri arauak, Arabako bolo modalitatea sustatzen duten Legutioko udalerriko toki administrazio txikietarako

Irabazteko xederik gabeko kirol klub eta elkarteei dirulaguntzak emateko aurrekontu partidak jasotzen ditu Legutioko Udalaren aurrekontuak. Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa 1.400,00 euro da, eta 340.434.010 aurrekontu aplikazioaren kontura finantzatuko da.

Horregatik, eta lehen aipatutako entitateek dirulaguntzak eskuratu ahal ditzaten errazteko eta aurrekontuan jasotako ekintzen publizitatea bermatzeko xedez, oinarriak ezartzen dira:

1. Deialdiaren xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jarduerak eragindako gastuen finantzaketan laguntzea 2018an Arabako boloaren kirol modalitatea udalerrian sustatzen duten Legutioko toki erakunde txikiei, edo udalerrientzat interesgarri jotzen badira.

2. Onuradunak erakunde laguntzaile gisa

Legutioko udalerriko toki erakunde txikiak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradunak, erakunde laguntzaile gisa.

3. Diruz laguntzeko moduko programak

Legutioko udalerriko toki erakunde txiki guztiak, baldin eta bolo taldeak badituzte parte hartzen Arabako txapelketan (Arabako Bola joko Federazioaren txapelketa ofiziala), 2018. urtean garatutako berariazko egutegiarekin (gehienez ere 2 talde diruz lagunduko dira toki erakunde txiki bakoitzeko).

4. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da hartzen inolako betebeharririk deialdi honetara aurkeztzen diren eta oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko. Hauek izango dira dirulaguntzak emateko balorazio irizpideak:

a) Jarduera proiektuaren edo programaren interes publiko edo soziala, bai eta proposatzen diren helburuena ere.

b) Udalerriko herrietan eragina duten eta bertako kultura eta kirol jarduerak sustatzen dituzten proiektu edo jarduerak izatea.

c) Entitate eskatzailearen egonkortasuna eta kaudimena, eta aurkeztutako programaren jarraitutasuna.

d) Entitate sustatzailekoak ez diren pertsonak kide direnen baldintza beretan parte hartzea proiektuaren edo programaren xede diren jardueretan.

e) Dirulaguntzaren bitartez programa aurrera eramatea bermatzeko aurkeztu ditzakeen baliabideak (azpiegitura, materialak eta baliabide pertsonalak).

f) Programak edo jarduerak euskararen zabalkundearen laguntzea.

g) Kontuan hartuko da eskatutakoak erakunde eskatzailearen diru baliabideekin duen proportzionaltasuna.

5. Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzek kopuru finko bat izango dute, zeina udalbatzak erabakiko baitu (gehienez ere 700,00 euro taldeko), programaren kostuaren zati bat estaltzeko, eta garrantzitsua bezain kontuan hartzekoa da sustatzaileak gaitasuna izatea bere baliabideak sortzeko edo beste administrazio publiko batzuen bidez lortzeko.

Dirulaguntzen zenbateko osoa 2018rako kontsignatutako aurrekontu mugen arabera izango da.

6. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikazioa

Dirulaguntzak ordaindu ahal izateko beharrezkoak izango dira:

– Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteagatik eragindako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatuta eta fakturak, ordainagiriak edo frogagiriak aurkeztuta. Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten faktura, ordainagiri edo bestelako agiriak:

* Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

* Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

* Gastuaren xedea.

* Data.

– Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarreren eta gastuen balantzea.

– Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria.

Horiek guztiak, 2018ko urte naturalekoak, hau da, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra artekoak.

7. Eskabideak

Dirulaguntza hauek eskuratzeko interesa duten Legutioko toki erakunde txikiek, hala adierazi beharko dute Legutioko Udalean emango zaien inprimakian (I. eranskinean dago). Halaber, agiri hauek erantsi behar dira:

a) Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

b) Ordezkeri gisa jarduten duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, nola eta eskaera orria izenpetzen duena erakundearen lehendakaria bera ez den.

c) Jardueraren proiektua edo programa, ondoko hauek azaldu behar direlarik, bereiz:

– Lortu nahi diren helburuak.

– Jardueraren egutegia (Arabako herri arteko egutegia eta InterLegutio egutegia).

– Programaren edo jardueraren kostua.

– Deialdi honetatik kanpo kudeatuko diren baliabideak.

– Beste erakundeen dirulaguntzak (Aldundiarena, ...). Zenbatekoa jakin ezean, jarri 2017ko dirulaguntzaren zenbatekoa.

– Jarduera bakoitzeko diru sarrerak.

– Bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota.

– Taldeko kideen zerrenda (federazioko alten zerrenda).

Kolektiboko onuradunek konpromisoa hartzen dute aurkezteko berek egindako jardueren inguruan Legutioko Udalak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak.

8. Epea

Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerak edo berarekin batera aurkeztutako nahitaezko agiriek hutsen bat badaukate edo osorik ez badaude, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hautemandako akatsak zuzentzeko; epe hori igaro eta esandako akatsak ez badituzte zuzendu, beren eskaeran atzera egiten dutela ulertuko da eta prozedura artxibatu egingo da.

9. Dirulaguntza galtzea

Legutioko toki erakunde txiki onuradunek deialdi honen bidez emandako dirulaguntza gal dezakete, aurrez espedientea irekita, kasu hauetan:

- a) Aurkeztutako eskaeran edo agirietan gezurrezko datuak azaldu badituzte.
- b) Emandako dirulaguntza ez bada erabili aurkeztutako eta onartutako programan aurreikusten diren jardueretarako.
- c) Oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntzak emateko erabakian finkatutako betebeharren bat konplitzen ez bada.

10. Lankidetzak

Legutioko Udalak erabakiko du, berak kirol hedapenerako antolatutako kanpainak aurrera eramateko egoki irizten dion kasuetan eta dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera, elkarte edo klub onuradunek zer laguntza eman behar duten.

Dirulaguntza jasotzeko baldintza izango da entitate onuradunak udalerrian gutxienez kirol eta kultura jarduera bat edo beharrezko jotzen direnak antolatzea.

11. Dirulaguntzak emateko prozedura

1. Lehiaketa bidez emango dira dirulaguntzak, kiroleko informazio batzordeak proposatuta eta aurrez alkate lehendakariak dagozkion oinarriak onartuta. Batzordeak, proposamen hori egiteko, egoki irizten dituen aholku teknikoak eskatu ahal izango ditu.

2. Informazio Batzordeak ezin du proposatu, inola ere, oinarri arautzaileetan ezarritakoa urratzen duen dirulaguntzarik emateko.

3. Zalantzarik sortzen bada oinarri hauek interpretatzean, Legutioko Udaleko kirol batzordeak ebatziko du.

12. Araudia

Oinarri arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 38/2003 Legea, dirulaguntzen orokorra, eta Legutioko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.

Legutio, 2018ko azaroaren 16a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA